




EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %6,7 haziko da 2022an

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

BPGA 2021
%6,7




Gaur egungo aurreikuspen ekonomikoek erakusten dute mundu mailako susperraldia aurrera jarraitzen ari dela, baina intentsitatea galtzen ari dela, ziurgabetasuna areagotzen den bitartean. Nazioarteko testuinguruan, beheranzko arriskuak nabarmen nagusitzen dira. Hala, pandemia berriro aktibatu izanak, txertaketa prozesua atzeratzeak eta birusaren aldaera berri erresistenteagoak agertzeak egoera ekonomikoa baldintzatu dute. Bestalde, nazioarteko merkatuetako eskaintzaren eta eskariaren desorekak areagotzeak eta inflazioan dauden tentsioak areagotzeak aurreikuspen ekonomikoak okerragotu dituzte.

Eskura dagoen koiunturako informazioarekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2021erako taula makroekonomikoa berrikusi du, beheranzko zuzenketa garrantzitsu batekin, eta 2022ko datuak gorantz eguneratu ditu. Aurreikuspen agertoki berriak %5,6ko batez besteko igoera ezartzen du 2021ean eta %6,7koa, berriz, 2022an. Ekoizpen kateetan botila lepoak egotea, eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekak direla eta, hazkundea 2021eko bigarren seihilekotik 2022ra lekualdatzea eragiten duen faktore nagusia da.


AZKEN KONTSUMOA

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Familien kontsumoari mesede egingo diote, batetik, geroratutako eskari efektuak, eta, bestetik, errenta eskuragarrian, termino errealean, espero den igoerak. Enpresen inbertsioa dinamismo handieneko barne eskariaren agregatua izango da, Europako funtsek emanago duten bultzadari esker. Eskaintzari dagokionez, ekoizpen adar guztiek ekarpen positiboa egingo diote EAEko BPGaren hazkunderi, bai 2021ean, bai 2022an.

BPGaren igoerak eragin handia izango du enpleguan. Lanaldi osoko lanpostuei dagokionez, %5,0ko eta %3,4ko hazkundera aurreikusten da 2021ean eta 2022an, hurrenez hurren. Langabezia tasa %10,0ra jaitsiko da 2021ean eta %9,2ra iritsiko da 2022an.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.